

Eranskina: COVID-19aren pandemiaren testuinguruan ebakuntza kirurgikoa egiteko baimen informatua

COVID-19aren PANDEMIAREN TESTUINGURUAN EBAKUNTZA KIRURGIKOA EGITEKO BAIMEN INFORMATUA

IDENTIFIKAZIO DATUAK

Gaixoaren izen-deiturak:....., historia zk.:

Ordez kariaren izen-deiturak:..... (bidezkoa bada)

INFORMAZIO ESKAERA

COVID-19aren pandemiaren egoeraren berri izan nahi dut, nire gaixotasunari eta eginen zaidan ebakuntzari dagokienez: **Bai Ez**

Informazioa honako honi ematea nahi dut:

.....

EGOERAREN DESKRIBAPENA

Informazio gehigarri honen helburua zuk zure tratamenduaren eta ebakuntza kirurgikoaren arriskuei buruzko informazioa izatea da, gaur egungo salbuespenezko egoera honetan, COVID-19aren pandemia sufritzen ari garen bitartean askatasunez erabaki dezazun tratamendurako baimena emateko edo tratamendua baztertzeko.

Aurrean dugun pandemia-egoera eta osasun-sistemaren kolapso luzea direla-eta, gure inguruko ospitale gehienetan bloke kirurgikoak ia erabat itxi behar izan dira, eta ospitaleetako jarduera kirurgikoa ia larrialdietara mugatu da. Pandemiak Nafarroan duen eragina gutxitzen ari den une honetan, baliabide gehiago izateko aukera ematen baitu, lanari berriz ekitea erabaki dugu, betiere baldintza logistikoei eta epidemikoei jarduera kirurgikoetarako bide ematen duten neurrian.

Hala ere, ez dugu ahaztu behar patologia batzuen pronostikoak okerrera egin dezakeela ebakuntzaren atzerapenagatik. Halaxe gertatzen da tumoreekin lotutako patologiekin, baita patologia ez larriekin ere.

Ospitaleak zirkuitu espezifiko bat diseinatu du zu bezalako pazienteentzat. Zirkuitu horretan, hainbat neurriren bidez, infekzio-arriskua ahalik eta gehien murrizten saiatzen ari gara. Hala, beste neurri batzuen artean, egoerak askoz hobera egiten ez badu, zure bisitak murriztuak izanen dituzu, kasu bakoitzaren aztertuta, jakina, ospitaleratuta zauden bitartean medikuen bisitak eta ahalik eta gehien mugatuko dira, kutsatzeko arriskua murrizteko, eta ezin izanen zara atera zure gelatik paseatzera, espresuki kontrakorik agindu ezean.

Azken 14 egunetan COVID-19ak eragindako infekzioa ba ote duzun adieraz lezakeen zeinu edo sintomarik izan baldin baduzu, medikuari esan behar diozu: arnasbideetako gaixotasunen edo arnasa hartzeko zailtasunaren sintomak, eztul lehorra, sudurreko jariora, zintzurreko mina, 37,3°C-tik gorako sukarra edo covid-19arekin lotutako beste sintoma batzuk, zuk adierazi nahi dituzunak, edo infekzioa izan lezaketen pertsonekin egon izana, edo alarma-egoera errespetatu ez izana, salbu eta salbuespenezko egoeretan.

COVID-19aren PANDEMIA DELA-ETA DAUDEN ARRISKU ORORRAK

Baldintza normaletan, higieneko eta esterilizazioko protokolo zorrotzak aski dira pazienteari eta osasun-taldeari beharrezko biosegurtasuna ziurtatzeko. COVID-19aren pandemiaren ondoriozko salbuespenezko egoera horretan, kontuan hartuta birusa kutsatzeko arrisku handia dagoela eta osasun arloko langileak pazientearengandik hurbil daudela tratamendu eta ebakuntza kirurgikoetarako, eta ebakuntza-gelan aerosolak sortzen direla ezinbestean, ezinezkoa da COVID-19a kutsatzeko arriskua erabat ezabatzea, nahiz eta babes, segurtasun eta higiene baliabide guztiak izan.

Garrantzitsua da COVID-19arekin kutsatzeko arriskuaren berri izatea eta jakitea ezen, COVID-19aren pandemia-testuinguru honetan, biriketako konplikazioak sortzea.

Ospitaleko egonaldian COVID-19aren infekzioa izateko arriskua dagoen honetan, nahiz eta ezinezkoa zaigun jakitea zenbatekoa den kirurgia gehiago atzeratzeak dakarren arriskua, zure kasuan, arreta ematen dizun mediku-taldeak eta kasua baloratu duten profesionalak uste dute onura potentzialak handiagoak direla arriskuak baino, eta, beraz, ebakuntza egitea proposatzen dizugu.

ADIERAZI NAHI DUZU ZERBAIT INFORMAZIO HONI DAGOKIONEZ?:

.....
.....
.....

Deklarazioak eta sinadurak:

.....jauna/andreak
(NANA:)

- ADIERAZTEN DUT: medikuak alde zuzenetik eta behar bezala jakinarazi didala COVID-19aren pandemiaren testuinguruan egindako ebakuntza kirurgikoaren salbuespenezko egoera, bai eta haren arriskuak eta konplikazioak ere.
- Badudala gaur egun gerta daitezkeen arriskuen eta/edo ondorioen berri, eta neure gain hartzen ditudala, medikuek baliabide guztiak eskura jarri arren.
- Idazki hau irakurri eta ulertu dudala. Pozik nago jasotako informazioarekin, egoki iruditu zaizkidan galdera guztiak egin ditut, eta argitu dizkidate sortu zaizkidan zalantza guztiak.
- Ulertzen dut, bestalde, edozein unetan eta inolako azalpenik eman beharrik gabe, atzera botatzen ahal dudala orain ematen ari naizen baimena, mediku-taldeari jakinarazte hutsarekin.

Informazioa ematen duen medikuaren sinadura

Pazientearen sinadura

.....jauna/andrea jauna/andrea

Elkargoko kide zk.:

Data:

.....jaunak/andreak (NANA:)

..... naizen aldetik, dela-eta, baimena ematen dut proposatutako prozedura egin dadin.

Ordezkararen sinadura